



HONDARRIBIKO UDALA

HONDARRIBIKO HIRI OSO PRESTU, OSO LEIAL, OSO ADORETSU ETA BETI OSO ZINTZOAN 2010EKO IRAILAREN 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 ETA 11N GUADALUPEKO AMA BIRJINAREN OMENEZ OSPATUKO DIREN EKINTZEN EGITARUA.

Iritsi dira gure jaiak. Hain estimatuak direnez, bukatu orduko datorren urtekoak ospatzeko irrikan gaude. Herri osoa egun hauen zain, gure lagun eta familiakoekin gozatu eta ondo pasatzen baitugu. Eta gure jaietan, EGUN hori, herri gisa berresten gaituena eta horren bidez gure antzinakoei ohore egin, eta gure sentimendurik kutunenak azaltzen dituguna. Irailaren 8a. 1638an jasandako setioaren ondorengo garaipena gogoratzeko eguna, jaia ospatzeko eguna. Kolore desberdinetako eguna, zuria, gorria, beltza, urdin argia, urdin iluna, alpargata eguna...Gure Hiriarentzat urteko egunik garrantzitsuena, bakean eta senidetasunez ospatzeko. Besterik ez da egun horretan.

Baita egun batzuk ere, zergatik ez, jadanik gurekin ez dauden senide maiteak gogoratzeko. Beraientzat gure oroitzapen eta esker onik nagusia.

Hondarribiarrok: gozatu!

Gora Hondarribia!
Gora Ama Guadalupekoa!

Aitor Kerejeta
Alkatea



IRAILAK 4 - LARUNBATA

10:00- 20:00 Arma Plazan, **BASKET 3X3** "Hondarribiko Hiria" II. Txapelketa.

11:00 HONDARREZKO GAZTELU ETA IRUDIEN XV. LEHIAKETA
Hondartzan.

12:00 Udaletxeko Areto Nagusian, Jaietako kartel eta argazki lehiaketako, Aste Santu eta Erdi Aroko azokako argazki lehiaketetako eta Lorez apaindutako balkoien lehiaketetako **SARI BANAKETA**.

16:30 I. GAZTE LASTERKETA: 8 urtetik 14 bitarte. Irteera eta helmuga Gernikako Arbolan.

18:00 XXXIV. GUADALUPERAKO IGOERA - Maila guztientzako oin-lasterketa. Irteera Jostalditik.

23:30 Bentan, **DIOS SALVE A LA REINA** taldearen emanaldia (**QUEEN** taldearen omenez).

IRAILAK 5 - IGANDEA

09:00-21:00 Kirol Kaian, **IRRATIZALEEN** erakustaldia. Hondarribiko jaiak direla eta estazio berezia martxan jarriko da.

11:30-14:30 Kai-Zaharrean **STAND UP PADDLE SURF** kirolean jarduteko aukera, Hondarribia Party SUP Eskolaren eskutik.

12:00 Baluartean, txiki eta gaztetxoentzat, **APAR BAINUA**.



12:30 Bentan, **AGUIBAILE** Saloi-Dantza elkartearen erakustaldia.

17:30 **TXIRRINDULARI PROBA** 14 urtez beherakoentzat Ama Guadalupekoa Ikastetxetik abiatuta.



IRAILAK 6 - ASTELEHENA

10:45 Haurrentzako zezenen Entzierroaren iragarle **TXUPINAZOA** Udaletxeko balkoitik (Konfeti eta globo jaurtiketa).

11:00 **HAURRENTZAKO ENTZIERROA ZEZEN PUZGARRIEKIN.** Santa Maria atetik abiatu, Hirigune Historikoaren barrena, Arma Plazaraino.

16:00 Klink elkartearen eskutik **HAUR** eta **GAZTETXOEN LXI. MARGO LEHIAKETA**, Gipuzkoa Plazan.

17:30 **XVI. GRAFFITI LEHIAKETA** eta **HAURREN XI. GRAFFITI LEHIAKETA** Zezen Plaza aurreko Harresietan.

Izen emateak Gazteentzako Informazio Bulegoan egin behar dira (San Pedro kalea, 15), irailaren 1a arte, 10:00etatik 13:00etara .

18:00 Zezen Plazatik abiatuta Hirigune Historikotik pasa eta Porturaino iritsiko dira **ERRALDOI ETA BURUHANDIAK.**

20:00 San Pedro kalean, **NIÑO COSTRINI** umoristaren **HUMANUS COMICUS** antzezlan.

22:30 **KANTINEREN AURKEZPEN-DESFILIA** San Juan de Dios Plazatik abiatuko da "Hondarribiko Hiria" Musika Bandarekin batera. Klink elkarteak antolatua.

22:30 Bentan, **DISKO JAIA.**

23:30 "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren Jaietako **KONTZERTU BEREZIA**, Gipuzkoa Plazan.



IRAILAK 7 - ASTEARTEA

11:15 HAUREN DANBORRADA Mendelu auzotik abiatuko da eta Amute, Kosta eta Santa Engrazia igaro ondoren, hiriguneko kaleetan amaituko du bere ibilaldia.

12:00 Suziri eta kanpai-hotsez Hiriko jaiei hasiera ofiziala emango zaie.

Bitartean, Txistulariak hiriko kaleetan ibiliko dira 1638ko setio oroigarri hartako **TITI-BILITI** doinua joaz.

12:15 ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK, Haurren Danborradarekin batera, Kasino zaharretik abiatu eta kalez kale ibiliko dira.

12:30 JAVIER SAGARZAZU margolariari **HIRIKO URREZKO INTSIGNIA** jartzea.

18:30 " Hondarribiko Hiria" Musika Banda kalez kale ibiliko da **TITI-BILITI** joaz.

20:00 TE DEUM ETA SALBEA Jasokunde eta Sagarzazuko Ama Birjinaren Eliza Nagusian. Udal Agintariak bertan direla, Parrokiako Abesbatzak Eslavaren **SALBEA** abestuko du.

Bitartean, ohiko deskargak egingo dira. Elizkizuna amaitzean Udal-kideek **AURRESKUA** dantzatuko dute Arma Plazan hondarribiar guztien omenez.

Ondoren, **DANBORRADA KALEJIRA** hirian barrena.

20:00 Guadalupeko Elizan **SALBE** herrikoia kantatuko da. Ondoren, ohiko deskargak egingo dira.



IRAILAK 8 - ASTEAZKENA

5:00 **ALBORADA**

6:00 Danborradaren eta "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren **DIANA**

Jarraian, Hondarribiko Hiriak Guadalupeko Ama Birjinari, 1638ko irailaren 7ko gertakizun dohatsuagatik bere eskerrona azaltzeko emandako hitza betetzea, hiria 69 egunez inguratuta egon ondoren askatu baitzuen.

11:30 Guadalupeko Ama Birjinaren Santutegian Meza Nagusia, Udalbatza bertan dela.

22:30 Bentan, **LA PEGATINA** taldearen emanaldia, ondoren **BON SCOTT BAND**-ek joko du.



IRAILAK 9 - OSTEGUNA

9:00 **URANZU** Dultzaineroen **DIANA** .

11:00 San Pedro kalean, **II. MOTO LASTERKETA** haur txikientzat (4 urte bitarte). Motoak (taka-taka antzekoak) parte hartzaileek ekarriko dituzte.

11:00 - 13:30 Zezen Plaza aurreko Harresietan, **HAUR PARKE ERRALDOIA**.
Euria eginez gero, Jostaldi pilotalekuan egingo da.

12:00 San Pedro kalean, **ITSAS ETXEA III. GAZTE GYMкана**.
11 eta 14 urte bitarteko gazteek har dezakete parte.

12:30 **SOKAMUTURRA** Kale Nagusian. **URANZU** dultzaineroen emanaldia.

16 urtez beherakoek sokamuturrean parte hartzea erabat debekatuta dute.

16:30 Gipuzkoa Plazan, **PUZZLEAK BIKOTEKA**.

Mailak:

- a) 3 - 5 urte bitartekoak - 50 aleko puzzlea
- b) 6 - 8 urte bitartekoak - 100 aleko puzzlea
- c) 9 - 11 urte bitartekoak - 200 aleko puzzlea
- d) 12 -16 urte bitartekoak - 300 aleko puzzlea

17:00 Zezen Plazatik abiatuta, Hirigune Historikotik pasa eta Porturaino iritsiko dira **ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK**

17:00 - 20:00 Zezen Plaza aurreko Harresietan, **HAUR PARKE ERRALDOIA**.
Euria eginez gero, Jostaldi pilotalekuan egingo da.

20:00 Arma Plazan, **TXORBELA OTXOTEAREN** emanaldia.

21:00 San Pedro kalean, **ZEZEN SUZKOEN ENTZIERROA**.



22:30 Arma Plazan, antzerkia. "MALDITO PARNÉ" komedia. **GLU-GLU PRODUCCIONES**-en eskutik.



IRAILAK 10 - OSTIRALA

9:00 **GOIZUT** dultzaineroen eskutik **DIANA**.

10:00 **MEZA NAGUSIA** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizan, 1638ko Hiri Setiamenduan hildakoen alde, Udalbatza ere bertan dela.

Aldi berean Hiriko Bandera agurtuko da, eta elizkizunak dirauen bitartean ohiko deskargak egingo dira.

Meza bukaeran Parrokiako Abesbatzak Perosiren **LIBERAME** abestuko du.

10:00 San Pedro kalean, **KOADRILEN ARTEKO JOKOAK** Betti-Gotti taldearen eskutik.

11:00 - 13:30 Zezen Plaza aurreko Harresietan, **HAUR PARKE ERRALDOIA**.
Euria eginez gero, Jostaldi pilotalekuan egingo da.

12:00 Zezen plazatik abiatuta **ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** hiriko auzoetan barrena ibiliko dira.

12:00 Txaranga bat kalez kale ibiliko dira.

12:30 **SOKAMUTURRA** San Pedro kalean.
16 urtez beherakoek sokamuturraren parte hartzea erabat debekatuta dute.

13:30 Hondarribiko elkarte gastronomikoen arteko **I.SUKALDE TXAPELKETAREN** erabaki hartzea.

14:30 **ADINEKOEN OMENEZKO BAZKARIA** Ardora jatetxean, **HARITZA** musika taldearekin.

14:30 **GAZTEENTZAKO HERRI-BAZKARIA** Bentan.



17:00 - 20:00 Zezen Plaza aurreko Harresietan, **HAUR PARKE ERRALDOIA**.
Euria eginez gero, Jostaldi pilotalekuan egingo da.

17:30 Bentatik abiatuta, **HONDARRIBIKO ELEKTRO-PATXARANGA**.

19:00 San Pedro kalean, **DISKO FESTA** gazteentzat.

22:30 **GRUPO ARACIEL**-en habanera emanaldia, Arma plazan.

22:30 Bentan, **BETAGARRI** taldearen emanaldia eta segidan **SOMA SOUND SISTEM**.

IRAILAK 11 - LARUNBATA

9:30 **GOIZUT** dultzaineroen eskutik **DIANA**

9:30 **BASERRITARREN EGUNA**. Ganadu, fruta eta barazki lehiaketa Zumardian.

11:00 Gernikako Arbolan txikientzako eta gazteentzako **GORRITIREN** animalia erakusketa (Poni-an igotzeko aukera, txekorrak, basurdekumeak)

12:00 Zumardian, **EGAÑA** eta **PEÑAGARIKANO** bertsolariak.

12:00 Zezen Plazatik abiatu, Hirigune Historikotik pasa eta Zumardiraino iritsiko dira **ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK**.

17:00 **IDI-PROBA** Zumardian

17:30 Arma plazan **XURDIN** taldearen haurrentzako emanaldia

17:30 **PROFESIONAL MAILAKO PILOTA PARTIDA JAIALDIA** Jostaldi Pilotalekuan.



1. Partida: **OLAZABAL - MERINO II // IDOATE - L.GALARZA**
2. Partida: **MTZ.DE IRUJO - BEROIZ // TITIN III - BARRIOLA**

18:00 Zumardian, **BASERRITARREN EGUNA**ren jarraipena. Herri kirola eta trikitilariak.

18:30 Haur eta gazteentzat **TXOKOLATADA**.

21:00 San Pedro kalean, **ZEZEN SUZKOEN ENTZIERROA**.

22:30 **SUAK**, Butron Pasealekutik ikusteko, **PIROTECNIA ZARAGOZANA** pirotekniaren eskutik.

23:00 Bentan, musika talde hauen emanaldia: **BIG BOSS MAN** eta **THE EXCITEMENTS**.

23:00 Santiago kalean, **PANTXOA ETA PEIOREN KANTALDIA**. Euria eginez gero Hondartza Kiroldegian izango da.